

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1929

AGINDUA, 2019ko apirilaren 4koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez beka-deialdia egiten baita nautika- eta arrantza-arloko ikasketak egiteko 2018-2019 ikasturtean honako ikastetxe hauetan: Blas Lezo – Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxean; Bermeoko Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Eskolan, eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren helburuetako bat da arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileen trebakuntza-politika egokiari eustea. Horregatik, arrantza-sektorearen premia eta berezitasun sozioekonomikoei erantzuna emateko, beharrezkoa da itsas langileei eta, oro har, merkatuaren betekizunetara egokitutako prestakuntza jaso nahi duten guztiei bekak emateko deialdia egitea, Europatik eskatzen denari egokitutako prestakuntza jaso dezaten aipatutako arrantza-sektorearen mesedetan.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta 15.1.u) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzari dagokio «nekazaritzako eta arrantza eta nautikako prestakuntza eta arlo horietako prestakuntza profesionala sustatzea». Bestalde, 18.1.ñ) artikulua Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari esleitzen dio «arrantzako eta nautikako gaitasun profesionala sustatzea».

Eskumen-esparru horren barruan, eta lehen paragrafoan aipatutako helburu hori lortzeko, hain zuzen ere, egin dugu beken deialdi hau, aurreko ekitaldietan hasitako politikari jarraikiz. Horrekin lotuta, 2017ko ekitaldian, argitara eman zen Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko azaroaren 15eko Agindua, zeinaren bidez beka-deialdia egin baitzen 2017-2018 ikasturtean nautikako eta arrantzako irakaskuntzen arloko ikasketak egiteko honako ikastetxe hauetan: Blas Lezo - Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxean; Bermeoko Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Eskolan, eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean (2017ko abenduaren 12ko EHAA, 235. zk.).

Halaber, deialdi honetan, berriz ere aukera ematen da lantokiko prestakuntzako moduluei bekak emateko, heziketa-zikloen parte diren aldetik (B eta C mailak), betiere 3. zerrendako arrantza-ontzietan egiten badira, hala ezartzen baita Oinarrizko Lanbide Heziketaren antolamendua eta ezarpena arautzen dituen ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuan (2015eko ekainaren 12ko EHAA, 109. zk.).

Autonomia Estatutuaren 10.10 eta 16. artikuluen arabera Euskal Autonomia Erkidegoari emandako eskumenaren indarrez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuan jasotakoaren arabera, eta Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak proposatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— 1.— Beka-deialdia egitea 2018-2019 ikasturtean nautikari eta arrantzari buruzko ikasketak egiteko honako ikastetxe hauetan: Blas Lezo – Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxean; Bermeoko Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Eskolan, eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Bekak honako gastu hauetarako erabiliko dira:

- Ohiko bizilekutik kanpo bizitzeak eragindako gastuak.
- Ikastetxera joan-etorriak egiteak eragindako gastuak.
- Mantenu-gastuak.
- Ikasketa-materialetarako gastuak.

Hirugarrena.– Hautagaiek lortutako puntuazioaren arabera esleituiko dira bekak, eta puntuazioa horretarako izendatutako Balorazio Batzordeak ezarriko du. Hautagaiek behar bezala matrikultatuta egon beharko dute 2018-2019 ikasturtean, nautikari eta arrantzari buruzko ikasketen edozein ikastetxetan. Pertsona bakoitzari puntuazioa esleitzeko, irizpide hauek baliatuko dira:

1.– Egin beharreko ikasketen maila:

- * B maila – Goi-mailako heziketa-zikloak: 8 puntu.
- * C maila – Erdi-mailako heziketa-zikloak: 6 puntu.
- * D maila – Kostako patroiz balioaniztuna: 6 puntu.

B eta C mailetan, eskatzaile hauek bakarrik izan ahalko dira beken onuradun: ikasleak eskolatzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren beka- eta laguntza-deialditik kanpo geratzen direnak (Agindua, 2018ko irailaren 5ekoa, Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketak beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2018-2019 ikasturterako; 2018ko irailaren 14ko EHAA). Kostako patroiz balioaniztuna tituluari buruzko D mailan (36/2014 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, Arrantza-sektoreko lanbide-tituluak arautzen dituen 2014ko otsailaren 17ko BOE, 41. zk.), ikasketa teorikoak egiteko bekak eman ahal izango zaizkie beka horiek eskatzen dituzten eta baldintzak betetzen dituzten guztiei, adina gorabehera.

Beste alde batetik, B eta C mailetan, agindu honetan deitutako bekak jaso ahal izango dituzte prestakuntzaren zati praktikoa (lantokiko prestakuntza) jarduneko arrantza-ontzidiaren erroldan 3. zerrendan inskribatuta dauden arrantza-ontzietan egingo duten pertsona guztiek, hala ezarrita baitago Oinarrizko Lanbide Heziketaren antolamendua eta ezarpena arautzen dituen ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuan (2015eko ekainaren 12ko EHAA, 109. zk.). Kasu horietan, pertsona bakoitzari puntuak esleitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

B maila – Goi-mailako heziketa-zikloak: 4 puntu.

C maila – Erdi-mailako heziketa-zikloak: 3 puntu.

2.– Ohiko bizilekuko herritik ikastetxea dagoen herrirako distantzia: Irizpide honen kalkulua egiteko, kontuan hartuko da herrigunetik ikastetxera dagoen distantzia, eskala honi jarraituz:

- * 1. taldea: 50 kilometrotik gorakoa: 16 puntu.
- * 2. taldea: 31 eta 50 kilometro artekoa: 8 puntu.
- * 3. taldea: 11 eta 30 kilometro artekoa: 4 puntu.
- * 4. taldea: 5 eta 10 kilometro artekoa: 2 puntu.

3.– Eskatzailearen inguruabar pertsonal eta familiarrak:

* Ezkontidearengatik (ez badu ordaindutako lanik egiten): 2 puntu.

* Seme-alaba bakoitzarengatik: 2 puntu.

* Anai-arreba bakoitzarengatik (baldin eta adingabeak eta ezkongabeak badira, edo langabe-zian badaude eta euren familia-unitatean ezkontide bakarrak egiten badu lan): puntu 1.

4.– Eskatzaileak aurreko urtean lortutako diru-sarrerak gordinak, alde batera utzita nondik datozen, edo haren familiak lortutakoak, baldin eta eskatzailea ekonomikoki familiaren mende bizi bada:

* 0 eta 6.000 euro arteko diru-sarrerak: 8 puntu.

* 6.001 eta 12.000 euro arteko diru-sarrerak: 4 puntu.

* 12.001 eta 18.000 euro arteko diru-sarrerak: 2 puntu.

Laugarrena.– Beka hauen onuradun izateko betekizunak ondoko hauek izango dira:

1.– Dirulaguntza jasotzea dakarren egoeran dauden pertsonak, edo oinarri arautzaileetan eta deialdian aurreikusitako inguruabarrak betetzen dituztenak, betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

2.– Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eskaeraren unean, eta baita ordaintzeko unean ere.

3.– Onuradunek egunean ordainduta izan beharko dituzte dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, bai bekadun izateko, bai emandako dirulaguntza likidatu arte egoera horretan jarraitzeko, eta, horregatik, bekak emateko eta ordainketak egiteko unean alderdi hori egiaztatuko da.

4.– Eskatzaileek ikasturte osoan administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan eduki beharko dute.

Bosgarrena.– Balorazio Batzordeak esleituko die puntuazioa hautagaiei, aurreko puntuan azal dutako irizpideei jarraikiz egiten duen balorazioaren arabera.

Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Aitor Arrate Irureta, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzako Egitura Zerbitzuaren arduraduna.

Idazkaria: Beatriz Guinea Aramendi, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzako aholkulari juridikoa.

Bokalak: Mikel Arrieta Irigoien, Karmele San Miguel eta Mikel Santiso, Pasaia, Bermeo eta Ondarroako ikastetxeetako zuzendariak, hurrenez hurren.

Seigarrena.– Aurkeztutako eskabideak aztertu ostean, Balorazio Batzordeak baldintzak betetzen dituzten pertsonak hautatuko ditu, dagokien puntuazioa esleituko die, eta ebazteko proposamena helaraziko dio Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari, zeinak ebazpen bidez esleituko baititu agindu honen bidez deitutako bekak, hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik hasita. Ebazpen horretan, onuradunen zerrenda bilduko da, puntuazioa eta emandako bekaren diru-zenbatekoa zehaztuta eta urteka xehatuta; ebazpenean, halaber, ukatutako eskabideen zerrenda jasoko da, eskatzaileen izena eta ukatzeko arrazoiak adierazita. Interesdunei jakinarazpena egiteko, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere 10 eguneko epean, deialdia ebazteko epea bukatzen denetik

aurrera. Epe hori igarota jakinarazpenik jaso ez duenak eskabidea ezetsi dela ulertu ahal izango du, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Nolanahi ere, Administrazioak berariaz ebazteko betebeharra dauka. Ebazpen horrek ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean.

Zazpigarrena.– 1.– Gehienez ere, 133.815 euro baliatuko dira 2018-2019 ikasturterako deitutako bekak finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko 2019ko Aurrekontu Orokorreran horretarako ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera.

2.– Agindu honetan azaldutako baldintzak betetzen dituzten hautagai guztiek izango dute beka jasotzeko eskubidea. Bekak 2.404,05 eurokoak izango dira gehienez, eta bekadun bakoitzari esleitutako puntuen arabera eta proportzioan kalkulatuko dira. Puntuaren balioa honela kalkulatu da: bekei esleitutako zenbatekoa zati bekadun guztiek lortutako puntu guztien kopurua, agindu honen hirugarren puntuan ezarritako irizpideen arabera.

3.– Beken onuradunek honako xedapen hauetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikulua. Ildo horretatik, onuradunen betebeharra da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dien informazio guztia ematea, betiere erakunde horiek laguntzen zertarakoaren fiskalizazio-eginkizunen jardunean ari badira.

Zortzigarrena.– Bekaldiak 2018-2019 ikasturtearen iraupena izango du.

Bederatzigarrena.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Pertsona fisikoek eskaerak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz aurkeztu ahalko dituzte:

– Modu presentziala: eskabideak, beharrezko agiriak erantsita, ikastetxe hauetan aurkeztuko dira:

- Blas Lezo – Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxea, Marinos kalea 2 – 20110 Pasaia (Gipuzkoa).
- Bermeoko Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Eskola, Ongintza kalea z/g – 48370 Bermeo (Bizkaia).

edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16.4 artikulua xedatzen duen edozein bulegotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat.

– Modu elektronikoa: eskabideak euskadi.eus egoitza elektronikoa sartuta aurkeztuko dira, oinarri honen 3. apartatuan adierazitako helbideen bidez.

Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko moduak (elektronikoa zein presentziala izan) ez du behartuko aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak modu berean egitera, edonoiz alda daiteke eta.

2.– Eskabideak eta tramitatzeko adierazpenak, eta gainerako eredu edo beharrezko txostenak, modu presentzialean zein elektronikoa nola izapidetu jakiteko xehetasunak euskadi.eus-en egoitza elektronikoa hauetan eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus/y22-home/eu/> Gazt: <https://www.euskadi.eus/y22-home/es/>

www.euskadi.eus/y22-home/es/. Eskabidea egin osteko izapideak helbide elektroniko honen bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/micarpeta> eta <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

3.– Beka eskatzeko inprimakia agindu honen eranskinean dago jasota, eta, harekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren edo AlZaren fotokopia.
- b) Eskatzaileak administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan duela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- c) Familia-unitateko kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren fotokopia. Baldin eta familia-unitateko kideren batek ez badu aipatutako aitorpena aurkezten, aurkeztera behartuta ez dagoelako, horixe egiaztatu beharko du Foru Ogasunaren ziurtagiri baten bidez, eta, era berean, egiaztatu beharko ditu, nominen edo ordainagirien bidez, lanagatik, langa-bezia-subsidioarengatik, pentsioarengatik edo antzeko kontzeptuengatik jasotako zenbatekoak.
- d) Familia-elkarbizitzaren ziurtagiria.
- e) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- f) Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- g) Hirugarrenaren altari buruzko agiria.

Datuak egiaztatzeko sistemaren bidez kontsultatu daitezkeen agiriak aurkeztu beharrik ez dago, hala ezarrita baitago Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan. Hala ere, horretarako, interesdunak baimena eman beharko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hamargarrena.– 1.– Ikasketa teorikoen kasuan, beka bakoitzari dagokion zenbatekoa gora-behera, emandako laguntza osoa ordainketa bakar batean emango da ikastaro bukaeran, betiere ikasleak probetxua atera badio eta matrikulatutako modulu edo ikasgai guztiak gainditu baditu.

2.– Bekaren gehieneko zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuetara mugatuko da, eta, alde horretatik, onuradunak egindako gastu horien ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, originalak edo kopia konpultsatuak, hilabeteko epean, ikasturtea amaitzen den egunetik hasita. Agindu honen bigarren ebazpenean jasotzen diren gastuei erreferentzia egingo die: ohiko bizilekutik kanpo bizi-tzeak eragindako gastuak, ikastetxera joan-etorriak egiteak eragindako gastuak, mantenu-gastuak eta ikasketa-materialetarako gastuak.

Hamaikagarrena.– Beka-eskabidea aurkezteak berekin dakar beka-deialdia egiteko agindu honetan ezarritakoa formalki onartzeko konpromisoa. Bekadunak arau honetan ezarritakoa urratuz gero, esleitu eta eman zitzaion zenbatekoa itzuli beharko du, bai eta dirulaguntzen arloan ezarritako berandutze-interesak ere.

Behar bezala justifikatutako arrazoi bat dela-medio bekari uko eginez gero, bekagatik kobratutako eskubide ekonomikoak itzuli beharko ditu.

Hamabigarrena.— 1.— Eskolara joan ezean, beka jasotzeko eskubidea galduko du ikasleak. Ez-bertaratzea honela neurtuko da:

– Ikaslearen ez-bertaratze faltek eskola-orduen % 15etik gora egiten badute, beka galtzea ekariko dio, eta, horretaz gain, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu.

– Justifikatutako falten kasuan, falta-kopuruak eskola-orduen % 30etik gora egiten badu, goiko lerroaldean zehaztutako ondorioak sortuko dira. Betiere, klasera bueltatzen den unean bertan aurkeztu beharko du ikasleak eskolara joan ez izanaren justifikazioa.

2.— Ikasturtea errepikatzen ari diren ikasleek, hala balegokie, ohiko bekaren % 50eraino lortu ahalko dute, baldin eta aurreko ikasturteari probetxua atera ez izana justifikatzen badute eskolaz kanpoko arrazoi larriak agertuta; arrazoi horiek kasuan-kasuan baloratuko ditu agindu honen ebazpen-zatiaren 4. paragrafoan ezarritako batzordeak.

3.— Halaber, ikasleek galdu egingo dute lantokiko prestakuntzarako beka jasotzeko eskubidea, baldin eta ez badute modu sinesgarrian egiaztatzen prestakuntza hori egin dutela. Horretarako, prestakuntza praktikoa egin den arrantza-ontziko armadorearen idazki bat aurkeztu beharko dute.

4.— Beka galduz gero, jasotako kopuruak itzuli beharko dira, bai eta kopuru horiei dagozkien berandutze-interesak ere.

Hamahirugarrena.— Ezin da aldi berean baliatu ikasteko beka hau eta funts publikoen kontura helburu bererako ematen den beste edozein laguntza, eta, horrenbestez, eskatzaileak, agindu honetan deitutako beketako bat esleitzen badiote, laguntzetako bati uko egin beharko dio.

Hamalagarrena.— Bekadunak beka galduko du, eta jasotako zenbatekoa eta dirulaguntzen arloan dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, gehienez ere bi hilabeteko epean, baldin eta agindu honetan eskatutako betekizunen bat, edozein dela ere, bete ez duela egiaztatzen bada, onuradunak aurkeztu zuen dokumentazioan jasotako datuak okerrak edo faltsuak badira, eskolari probetxurik atera ez badio edo ez bada klasera joan, edo beste ez-betetzereen bat egin badu, bai bekaren xedeari dagokionez, bai eta laguntza emateko eskatutako baldintzei dagokienez ere. Horrelakorik gertatzekotan, ikasle txeko zuzendaritzek ziurtatu beharko dute. Hori guztia honako hauetan xedatutakoaren arabera: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen baita; abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak; eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

Onuradunak ia-ia erabat bete baditu bekaren baldintzak, eta konpromisoak betetzeko jokabide argia egiaztatzen badu, honako xedapen honetan ezarritako irizpideei jarraituz zehaztuko da itzuli beharko duen zenbatekoa: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17. artikuluko 3. apartatuaren n) letra.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko

Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, agindua EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 4a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA



QR: 10301#04

Eskaera
Bekak, nautikako eta arrantzako
irakaskuntzen ikasketak egiteko. 2018-2019

Organo instruktoreari zuzenduta:

ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA.

Eskatzailearen datuak*** Identifikazio-dokumentua****Zenbakia***** Izena****Lehen abizena****Bigarren abizena****Sexua**

Pertsona/entitate interesdun bezala ari naiz espedientean



Ordezkarri gisa ari naiz

Espedientean pertsona interesduna**Identifikazio-dokumentua****Zenbakia****Izena****Lehen abizena****Bigarren abizena****Sexua**



Teléfono Fijo

Teléfono Móvil

Email a

Jakinarazpen hartzailea

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

Tramitazioan zehar administrazioak bidaliko dizkizun jakinarazpenak Ordezkarien Erregistroan altan emanda dagoen ordezkariari igorriko zaizkio. Ordezkaririk ez badaukazu, honi:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: [Nire karpeta](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat beharrezkoa da.

10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzan ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

* Posta elektronikoa

Telefono mugikorra

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza



Euskara



Gaztelania



Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut. Aukera hau hautatzen baduzu etorkizunean Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekin izango dituzun harremanetan ez dizkizugu berriro komunikazio eta abisuetarako datuak eskatuko.



Nire komunikazio eta abisuetarako datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut. Aukera hau hautatzen baduzu etorkizunean Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekin izango dituzun harremanetan zure komunikazio eta abisuetarako datuak berriro eskatuko dizkizugu.



Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabili egingo dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio:

- **Arduraduna:** Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza.
- **Helburua:** Dirulaguntzen eta laguntza publikoen kudeaketa.
- **Legitimazioa:** Tratamenduaren erakunde arduradunari emandako beharrezko tratamendua interes publikoaren izenean edo esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Diru-laguntzei buruzko Legea).
- **Hartzaileak:** Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala behartu ezean.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua.

<https://www.euskadi.eus/dbao/10301>

Honen arabera beteta:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>). 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (<https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>).

Organo instruktoreari zuzenduta:

ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA.

Zein lurraldetan daude eskatzailearen datu fiskalak.

* Lurralde Historikoa:

Kurtsoan zeharreko helbidea

Posta kodea

Probintzia

Udalerria

Helbidea

Zk

Sol.

Letra

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Telefono finkoa

* Telefono mugikorra

■ ESKATZEN DU: Behean aukeratutako maila eta lekuan itsasarrantzako ikasketa egiteko bekara biltzea.

*

- ☐ A) Goiko graduako prestakuntza-zikloak
- ☐ B) Gradu ertaineko prestakuntza-zikloak
- ☐ C) Itsasbazterreko patroï balioaniztuna

*

- ☐ Formazio Teorikoa
- ☐ LPH

■ Prestakuntzarako Eskola edo Ikastexea

*

- ☐ Bermeo ☐ Ondarroa ☐ Pasaia

* Famili egoera

- ☐ Ezkondua ☐ Ezkongea ☐ Banandua ☐ Alarguna

* Seme-alaba kop.

* Anai-arreba kop.

Ezkolagunak lan egiten du (izanez gero)?

- ☐ Bai ☐ Ez

Familia-unitateko kideak

Izen-abizenak	Senidetasuna	Adina	Aktibitatea /Ikasketak	Hileko diru-sarrerak

* Aurreko ikasturtean eginiko ikasketak

* Familia-unitateak iaz izandako diru-sarrerak, guztira

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Erantzukizunpeko adierazpenak

Aitortzen dut eskatzaileak ondokoak betetzen dituela:

*Bateragarritasun-adierazpenak

- ☐ Ez du jasotzen helburu bera duen laguntza edo diru-laguntzarik administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
- ☐ Jasotzen ari da helburu bera duen laguntza edo diru-laguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batetik (atal honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu beharko dituzu).
- ☐ Eskatu du helburu bera duen laguntza edo diru-laguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batean, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu beharko dituzu).

☒ Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.

☒ Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean.

☐ Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako bat duela.

Zehaztu zer debeku mota duen:

☐ Cumple con las obligaciones establecidas en los artículos 14 y 46 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el artículo 50.2 de Decreto Legislativos 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. _EU

☐ Se compromete formalmente a la aceptación de lo dispuesto en la presente Orden. _EU

Gehitu nahi den dokumentua	Erantsitako dokumentua
Eskatzaileak administrazio-azotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan duela egiaztatzen duen ziurtagiria	
Familia-unitateko kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena.	
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenetik salbuetsita dagoela frogatzeko, Foru Ogasunaren ziurtagiria.	
Familia-elkarbizitzaren ziurtagiria	



Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honetako organo instrukzio-egileak datu hauek konprobatuko ditu eskumena duen administrazioan:

Organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzea

Nortasun-datuak (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia)

Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (EAEko Foru-aldundiak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentzia)

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia (GSDN))

☐ Espresuki aurka egiten diot prozedura honetako organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua)

Kontrakotasun espresua agertu baduzu, prozeduran eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzu.

Laguntzak behar bezala esleitzeko, adierazitako datuak erkatu eta beharrezko direnak egiaztatu ahal izango ditu Administrazio publikoak.

_____(e)n, _____(e)an

(Tokia)

(Data)

(Titularren edo ordezkariaren sinadura)



ESKABIDEA OSATZEKO ARGIBIDEAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

Zure izenean ari bazara:

- *Identifikazio datuak* atalean, bete itzazu titularrari dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona edo entitate baten ordezkaria bazara:

- *Identifikazio datuak* atalean, bete itzazu ordezkatzun duzun pertsonari dagozkion datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria atalean*.
- Sina ezazu eskabidea.

Erakundeak ordezkari bidez aritzen dira beti.

Identifikazio-dokumentua

Zehaztu dokumentu-mota: NAN, IFK, AIZ, pasaportea edo bestelakoren bat.

KOMUNIKAZIO ETA JAKINARAZPENETARAKO KANALA

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

- *Posta bidezkoa*: atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dira.
- *Elektronikoa*: Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, onartutako ziurtagiri elektroniko bat izan behar duzu.

10 egun naturaletan jakinarazpen elektroniko batera sartzen ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

ABISUAK JASOTZEKO DATUAK (JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOETARAKO BAKARRIK)

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak jasotzea aukeratu baduzu, helbide elektroniko eta SMS bidezko abisu-sistema erabil dezakezu. Abisu bat jasoko duzu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektroniko edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez (;).

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Eskatzaileak aitortzen du, bere erantzukizunpean, adierazpen hauetan azaltzen diren datuak benetakoak direla.

Administrazioak prozedurarekin ez jarraitzea erabaki dezake datuak zehatzak ez badira, zerbait nahita esan gabe geratu bada edo faltsuak badira. Horrek ez du eragotziko izan daitezkeen bestelako erantzukizun penal, zibil edo administratiboek aurrera egitea.

Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean. (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera).

Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, arauz zehaztu bezala. (1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatu ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak).

AURRETIK AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK

Nahitaezko datuak dira: dokumentuaren izena eta zein erakundetan entregatu zen.